

Oroimen asekaitza

'BLOODY SUNDAY'-RI BURUZKO FILMA. Egun beltzaren 30. urtemugan, Derryko biztanleek eta antzinako soldadu britainiarrek gertatutakoa berreraiki dute film batean

Jon Eskisabel | DONOSTIA

Jim Sheridan zine zuzendariak (*In the Name of the Father, Some Mother's Son*) behin esan zuenez, «irlandarrek inoiz ahanzi ezingo duten eta britainiarrek inoiz gogorarazi nahiko ez duten eguna» izango da *Bloody Sunday* betiko. Bake prozesuan murgilduta izan arren, Ipar Irlandako gatazkak hamarkadetan irekitako zauriak ez dira oraino itxi, baina denen artean mingarrienak *Bloody Sunday* eguneko gertakizunek irekitakoak dira.

Hogeita hamar urte geroago

oraindik epairik gabe dago 1972ko urtarrilaren 30ean Derryn giza eskubideen aldeko martxa baketsu batean parte hartzen ari ziren hamalau herritarren heriotzan soldadu britainiarrek izandako erantzukizuna. Kasu judizial irekia izaten jarraitzen du. Widgery epaileak egindako lehen ikerketa batek hildakoen errugabetasuna ukatu eta IRA erakunde armatuari egotzi zion gertakizunen ardura, soldadu britainiarren tiroak haren erasoari egindako erantzuna izan zirela argudiatuz. 90eko hamarkadaren hasieran ordea, Londresko sol-

daduen jokaera bidegabea salatu zuten Armadako zenbait kargudunen lehen testigantzak azaleratu ziren, eta hildakoen senideen presioen ondorioz ikerketa berriz zabaltzea agindu zuen John Major lehen ministroak 1998an.

Saville epailea buru duen ikerketa batzordean azken urteotan bildutako ehunka testigantzetan oinarritu da Paul Greengrass zuzendari ingelesa *Bloody Sunday*-ren 30. urtemugaren aitziakiaz telebistarako dokumental bat filmatzeko. *Bloody Sunday* bihar eskainiko da lehen aldiz ITV1 kanal pribatuan —

ekoitzi duen telebista katea da—, baina dagoeneko erreakzio sutsu eta kontrajarriak sortu ditu. Londresko Armadarekiko «iraingarria» dela diote unionistek eta *Daily Mail* egunkari kontserbadoreak horrelako lerroburu zitalarekin definitu zuen: *Bloody Fantasy*. Martin McGuinness Sinn Feineko buruzagiak berriz, Greengrassen zintzotasuna txalotu du: «Ingalaterrako herriak bere Gobernuari lotsa sorrazten dion auzi bati heltzeko prest egoteak sinesgarritasuna ematen dio».

Zazpi minutu

Neguko arratsalde hartako zazpi minutu eskasetan — manifestazioa abiatu zenetik kaleak herritarren odolez tintatu ziren arte— gertatutakoa berreraiki du Greengrassenek. Dublingo Rossville Street kalean kokatu zuen Derryko Bogside auzoa, eta Don Mullanen *Eyewitness Bloody Sunday* liburuan irakurritakoa irudikatzen saiatu zen: manifestazio jendetsuaren abiatzea, soldadu paratxutista britainiarren ibilgailuak bidea oztopatzen, barrikada baten jartzea, negar gasak era-

ERREAKZIOAK

Unionistek «iraingarria» deritzote Paul Greengrassen filmari; McGuinness txalotu du haren zintzotasuna

gindako jendearen sakabanatze nahasia, tiroak, manifestazio buruko pankartaren odolezko orbana, gorpuak lurtean... Greengrassen iritziz, Armada britainiarrak ez zuen herritarrak propio hiltzeko ezer antolatzen egun hartan, baizik eta «soldadu multzo txiki batek soilik izan zuen hilketen erantzukizuna».

Filmaketan Derryko biztanleek eta antzinako soldadu britainiarrek parte hartu zuten eskuz esku. «Duela hogeita hamar urte amsterik ez nuen gauzak ikusi nituen filmaketan», dio Greengrassenek, «soldadu paratxutista bat politikaz hitz egiten Bogside auzoan, oso ezaguna den emakume batekin. Hildakoen senideek mingostasunez baino eskuzabaltasunez erreakzionatu zuten filma ikusita, aitortu zuten gure filmak egia esaten duela, ez dute mendekurik nahi, adiskidetzera baizik».

ZINEMA

'Peuple migrant' filmeko bi kide gonbitatu ditu Garazikus taldeak

Lutxi Fourcade | DONIBANE GARAZI

Publiko guztiak loriatu dituen *Le peuple migrant* filma zabaldu zen abendu hasieran Ipar Euskal Herriko zinema gela gehienetan. Filmaketari buruzko xehetasunak ezagutarazteko asmoz, Garazikus elkarteak filmaren bi partaide gonbitatu ditu datoren igande arratsaldean, Donibane Garazin: Philippe Barbeau, soinu hartzailea, eta Peguy Alexandre, pelikanoak hazi dituen emaztea. Hitzordua finkatua da arratsaldeko 17:00etan eta filma ikusi ondoren, publikoak aukera izanen du mintzatzeko bi partaide horiek.

Le peuple migrant nahiko film berezia da. Dokumentala eta filmaren arteko lan honetan, hegazti migratzaileen istorio ederra kontatzen du. Filmak erakusten du nola hegazti milaka kilometro egiten dituzten zailtasun guztien gainetik, ozeanoak eta basamortuak zeharkatuz, biziraupenaren beharrari erantzuteko.

Hiru urteko lanak

Alabaina, dokumentala baino urrunago, Jacques Perrinek gaia landu du poesia aintzezkin, nolabaiteko gidoia inposatuz hegaztiari. Filmaketa azaltzeko, Garazikus elkarteak interesgarritzat jo ditu filmarekin lotura duten Euskal Herriko bi partaide gonbidatzea. Izan, soinu hartzailea Uharte Garazikoa bada ere, pelikanoak hazi dituen emazte gaztea Arrosako biologoa da.

«Arratsaldearen helburua izanen da kontatzea beren abenturak eta filmaren ekoizpena, iragan dituzten hilabeteak txoriak segitzen munduak zehar, abenturak hegazkinez, Afrikan edo Ipar Aldean», azaldu zuen Garazikus taldeak. *Le peuple migrant* obraren filmaketak bizpahiru urte iraun ditu, eta lehen lana izan da txori batzuk biltzea eta haztea.

Jacques Perrinen sail bereko hirugarren ekoizpena da hau, Microcosmos eta Tximinoen Populua filmen ondoren.



EPA
1972ko urtarrilaren 30ean Derryn gertatutako hilketen irudi bat.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Kameraren lekukotasuna

Bloody Sunday-ren 30. urtemugaren karietara ere argazki erakusketa bat zabaldu dute New Yorkeko (AEB) International Center of Photography-n: *Hidden Truths: Bloody Sunday 1972*. Londresko gobernuak ekintza subertsiboak egitearen susmopean Ipar Irlandako herritarrak epaiketarik gabe internamendu eremuetan sartzeko hartutako erabakiaren aurka antolatu zuen Derryko manifestazioa Ipar Irlandako Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak. Erakusketak martxaren berri emateko Derryn iritsitako na-

zioarteko kazetariak ateratako irudien laguntzaz, Bogside auzoan jazotakoaren testigantza eskaintzen du, baina horrez gain, gertakizunen berrosaketa kronologikoa eta geografikoa egiten du. Ordenadore batean instalaturiko datu baseak eskaintzen dituen argazki sailen eta Derryn maparen bidez, posible da manifestazioaren ibilbidearen jarraipena egitea, martxaren abiatzea, jendetzaren sakabanatzea negar gasekin, eta hamalau hildakoen tragedia. Argazkien indar emozionala areagotzeko, erakusketak *Bloody Sunday*-ko biktimen zenbait objektu pertsonal biltzen ditu: erloju bat, gorbata bat, patrikan aurkitutako libreta bat... Erakusketako argazkiak Derryn eraikiko den Giza Eskubideen Museoa jarriko dira.